Oinarri hauek diru-laguntzen esparru orokorra arautzen dute.

1. - Xedea.

Oinarri hauen xedea da honako hauek arautzea:

a) Itzuli behar ez diren laguntzak ematea, lan-kontratuak egiteko, behin betikoak zein aldi baterakoak izan, eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean (Sistema Bereziak kanpo) 2. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten langabeentzat.

Laguntza hauen xede izango dira 2014ko urtarrilaren 1etik gehienez ere 2014ko abenduaren 31ra bitartean egindako kontratuak.

b) Itzuli behar ez diren laguntzak ematea, 2014an enpresa-proiektuak sortu eta abian jartzetik eratorritako gastuak diruz laguntzeko. Proiektu horiek langabezian edo enplegua hobetzeko moduan dauden eta 2. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituzten sustatzaileek bideratu beharko dituzte.

2. - Kontratatutako beharrekotako pertsonen eta ekintzaileen baldintzak.

a) Kontratatutako diren pertsonen eskakizun hauek bete behar dituzte:

- Muskizen erroldatuta egotea 2012ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, egiaztatzea langabezian hilabete egon dela kontratazio egunaren aurretik, eta langabetu gisa izena emanda egotea Lanbide enplegu zerbitzu publikoan.
- Bigarren mailarainoko odolkidetasun- edo afinitate-harremanik ez izatea eta titularraren edo bazkide nagusiekin batera elkarbizitza-unitate bereko kide ez izatea, ezta enpresa edo erakunde onuradunaren gobernu-organotako kideekin ere.

Horretarako, bazkide nagusitzat jotzen da gizarte-kapitalaren % 10 baino gehiago duen sozio akzioduna edo parte-hartzailea, gizarte-borondatearen prestakuntzan egiazko aginte-lekua betetzen duena.

- b) Sustatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: Enpresa-proiektuaren sustatzaileetako bat, gutxienez, Muskizen erroldatuta egotea 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren alta-data baino lehen hilabeteko langabezia-egoera egiaztatzea eta Lanbide enplegu-zerbitzu publikoan langabetu gisa izena emanda izatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe bereko jarduerarik egin ez izana jardueran alta eman aurreko urtean. Baldintza hori eskatzaileari zein bigarren mailarainoko odolkidetasuna duten edo bizikidetzatza unitate bera osatzen duten pertsonen dagokie, belaunaldi-ordezkapena gertatu denean salbu.

- Foru Aldundiari aurkeztutako proiektuan, Forlan pertsona sustatzaile gisa aurkeztu izana, Enpresa-proiektuak sortzen eta abiarazten laguntzeko azaroaren 25eko 158/2013 FDarekin bat etorriz.

3. - Onuradunak.

3.1. Enpresa, saltoki eta profesional guztiek eskuratu ahal izango dituzte deialdi honetan jasota dauden kontrataziorako laguntzen onurak, forma juridikoa edozein dela ere.

Laguntzak eskuratu ahal izateko, erakunde onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- 2 a) atalean ezarritako eskakizunak betetzen dituzten pertsona langabetuak kontratatzea eta alta ematea Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean.
- Enpresak eta erakundeak ez egotea administrazio, erakunde edo organismo publikoen mende, eta ez izatea sozietate mailako harremanik.

3.2. Edozein ekimenek eskuratu ahal izango ditu enpresa proiektuak abiarazteko laguntzen onurak, forma juridikoa alde batera utzita. Dena den, enpresa gisa eratu beharko da, eta 2 b) atalean ezarritako eskakizunak bete beharko ditu.

4.- Kanpoan geratzen diren egoerak eta bateraezintasunak.

1. Honako egoera hauek programatik kanpo geratuko dira:

a) Langileak, aurreko 24 hilabeteetan enpresa berean edo enpresa talde berean zerbitzuak eman dituen kontratu mugagabe baten bidez, edota enplegu emaileak ondorengotza hartu duen enpresetan, Langileen Estatutuaren 44. artikulua araberak.

b) Izaera mugagabeko lan harremana elkarren arteko adostasunez amaitu duten langileak, baldin eta kontratatu aurreko hiru hilabeteetan gertatu bada.

c) Aldi baterako enplegurako enpresek egindako kontratazioak, langileak zerbitzuak emango dituzten enpresa erabiltzaileen eskura jartzeko egiten bada.

d) Arau-hauste oso larriak direla eta, enplegu programen onuradun gisa baztertu dituzten enpresek egindako kontratazioak.

e) Eskatera egin aurreko 12 hilabeteetan kontratuak iraungi dituzten enpresen kontratazioak, arrazoiak kaleratze kolektiboa izanda edo diziplina arrazoiak edo arrazoi objektiboak, baldin eta epai judizial irmo edo arbitrajeko laudo batek bidegabetzat jo baditu, kontratazioak egiten diren lan zentro berberari badagozkio.

f) Enpresa berean, izan deialdi honetan izan aurreko deialdietan, laguntzaren gehieneko zenbatekoa jaso duten pertsonen lan kontratazioak.

g) Enpresek edo enpresa talde berekoek egindako kontratazioak, baldin eta diru-laguntza justifikatzeko ezarritako araudia bete ez badute edo diru-laguntza itzultzeko prozesuan badaude, deialdi honetan edo aurreko deialdietan pertsona kontratatzeko laguntzak eskatu dutenen kasuan.

5.- Laguntzaren zenbatekoa.

A) Hona hemen diru-laguntzen zenbatekoak urtebete edo gehiagoko kontratuen kasuan, lanaldi osoa bada:

1. Langabetuak, oro har: gehienez ere 3.000 €.

2. 45 urtetik gorako langabetuak, langabeziaren antzinasuna urtebetekoa izanik gutxienez; eta 30 urtetik beherako gazteak, ohiko kontratuarekin (kanpoan geratuko dira praktikak egiteko eta prestakuntza jasotzeko kontratuak): gehienez ere 4.000 €.

3. 30 urtetik beherako langabetuak, unibertsitate titulua edo prestakuntza profesionaleko goi mailako titulua dutenak, tituluarekin bat datozen postuetarako eta kontratua ohikoa izanik (praktikak egiteko kontratuak kanpoan geratuko dira): gehienez ere 5.000 €.

Laguntzaren zenbatekoa % 20 areagotuko da deskribatutako kasu guztietan, baldin eta kontratazioa mugagabea bada. Kasu horietan, sortutako enpleguak bi urte iraun beharko du, gutxienez.

Era berean, laguntzaren zenbatekoa % 20 handituko da enpresa kontratatzailearen helbide soziala edo lan zentro baimendua Muskiz udalerrian badago.

Deskribatutako kasu guztietan, laguntza proportzioan murriztuko da iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada (betiere sei hilabete edo gehiagokoa bada), eta/edo lanaldi erdia bada (betiere, % 50 edo gehiagokoa bada).

Enpresaren eta langilearen artean kontratu bat baino gehiago egiten bada, gutxienez sei hilabete epea gorde egingo da lehen kontratua egin eta hurrengo urtebetean.

Laguntzak indarrean dauden bitartean, gehienez ere 7.000 €-ko laguntza jasoko da pertsona berarekin kontratuak egiten badira, edozein kasutan ere.

Deskribatutako laguntzak ezin dira elkarren artean batu, eta itzuli beharrik gabekotzat emango dira, kasuan kasu eta enplegu sortu berri bakoitzerako zehaztutako zenbatekoan.

B) Itzuli behar ez den laguntza bat ezarri da, 3.000 €-rainokoa, gizarte-helbidea eta helbide fiskala Muskizen duten enpresak sortzeak eta abiarazteak eragindako gastuak diruz laguntzeko, sortutako enpresa merkataritza- edo industria-lokal batean eta udalerriko jendearentzat irekita ezartzen bada (etxebizitza edo etxeetan instalatutako jarduerak kanpo utzi dira). 2014an laguntza honetatik bazter gelditu dira eskaeraren aurreko hiru ekitaldietan Forlanen eskutik laguntza hori bera jaso duten lokaletako jarduerak, salbuespen bakar batekin: lokal berean eginiko jarduera izan arren, jarduera hori Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako tarifen sailkapenetan aurretik lokal horretan egiten ziren jardueren multzoan sailkatuta ez egotea.

Honako hauek joko dira diruz lagun daitezkeen gastutzat: Negozioa ezartzeko lokala errentan hartzea, hornidura (argindarra, ura, telefonoa), aseguruari sariak, garbiketak eta mantentze-lanak, bulego materiala, zerbitzu profesional independenteak eta publizitatea eta promozioa. Halaber, Gizarte Segurantzarekiko kotizazioak ere diruz lagunduko dira autonomoen erregimen berezian, baita kontingentzia arruntak erregimen orokorrena ere, baldin eta urtebeteko epean sortzen badira enpresaren Jarduera Ekonomikoetan alta eman denetik aurrera.

Era berean, 1.000 €-ko laguntza emango da bere kontura lan egingo duen lanpostu bakoitzeko, 2 b) atalean adierazitako eskakizuna betetzen duen pertsona langabetu bakoitzeko.

Aitzitik, laguntza 2.000 €-koa izango da enpresen sustatzaileak lana lortzen zailtasun handienak dituzten pertsonen kolektiboak badira, eta laguntzaren ondoretarako, honako hauek joko dira horrelako kolektibotzat:

- Emakumeak.
- 45 urtetik gorako pertsonak.
- 30 urtetik beherako langabetuak, unibertsitate titulu akademikoa edo prestakuntza profesionaleko goi mailako titulua dutenak.
- Minusbaliotasuna duten pertsonak; horrelakotzat joko dira organismo ofizial eskudunak emandako minusbaliotasun ziurtagiria dutenak (gutxienez, % 33).

- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sisteman integratutako eskubidezko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arabera.

Kolektibo horietako batean dagoela justifikatze aldera, enpresa sortu den eguna hartuko da erreferentziatzat.

5. atal honetan adierazitako laguntzak ezin dira elkarren artean batu.

6.- Beste laguntza batzuk aldi berean gertatzea.

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira organismo publiko edo pribatuek emandakoekin, kontzeptu berberak diruz lagunduta ere.

Programa honetan ezarritako laguntzek edo diru-laguntzek errespetatu egingo dute Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko erregelamendua (EB), 2006ko abenduaren 28ko Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratua, batik bat Minimis laguntzak aplikatzeari buruzko EBren ituneko 87 eta 88. artikulua aplikatzeari dagokionez, ondoren egiten diren aldaketak ere aintzat hartuta. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa zehatz bati, guztira, 200.000 euroko Minimisen laguntza emango zaio edozein 3 ekitaldi fiskaletan. Muga hori aplikatu egingo da Minimisen laguntzaren forma edota xedea zein den alde batera utzita. Muga hori gainditzen bada, programa honen bidez emandako laguntza gaindikin horri dagokion zenbatekoak murriztuko da.

Edozein kasutan ere, kontratazio berbererako beste laguntza batzuk aldi berean gertatzen direnean, ordainduko den zenbatekoa ez da inoiz izango soldataren kostu gordina baino handiagoa. Horrelakorik gertatzekotan, Forlanek eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da soldataren kostu gordinari dagokion gaindikinean.

7.- Aurrekontuaren erabilgarritasuna, eskaera-epea eta lehentasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak 2014ko aurrekontuko "Muskizen enplegua sustatzeko eta jarduera ekonomikoa dinamizatzeko plana (2014)" izeneko partidaren kargura finantzatuko dira.

Zenbatekoa aldatu ahal izango da, Muskizko Udalak hala erabakitzen badu.

Eskaerak aurkezteko epea zabalduko da deialdi hau BAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Eskaerak ebazteko orduan, eskaerak erregistratu diren hurrenkerari zorrotz jarraituko zaio, baldin eta behar bezala bete badira eta espedientea osatua badago, harik eta aurrekontuetan ondore horretarako esleitu den aurrekontu kredituaren mugara heldu arte.

8.- Eskariak aurkeztea.

Eskaerak dagokion dokumentazioaren batera aurkeztuko dira Forlan Sustapen Ekonomiko eta Enplegurako Muskizko Udalaren Organismo Autonomoaren erregistroan, Meatzari plaza helbidean, 2. solairuan. Aplikatu egingo da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa.

Eskaera aurkezteak esan nahiko du oinarri hauen edukia onartzen dela.

Enpresak sortzeagatiko eskaerak, asko jota, hiru hilabeteko epean aurkeztuko dira JEZn alta eman den egunetik aurrera, edo bi hilabeteko epea deialdi honen iragarkia Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Nolanahi ere den, eskaerak aurkezteko epea 2014ko abenduaren 30ean amaituko da.

9.- Beharrezko dokumentazioa.

Laguntzen eskaerak deialdi honetan jasotako eredu normalizatuan aurkeztuko dira, eta enpresa edo erakundearen ordezkari gisa diharduen pertsonak izenpetuko du. Dokumentu hauek ere aurkeztuko dira:

1.- Kontratazioari dagokion dokumentazioa:

- a) Kontratuan subjektu gisa ageri den pertsonaren NANaren kopia.
- b) Zinpeko aitortpena, egiaztatzeko enpresa edo erakunde onuradunen titularrak edo gehiengoaren bazkideek eta gobernu organoetako kideek ez dutela bigarren mailarainoko odolkidetasun- edo afinitate-harremanik diruz lagunduko den kontratuaren subjektu den pertsonarekin, baita ere, ez direla elkarbitzita-unitate bereko kide.
- c) Diruz lagunduko den lan kontratuaren kopia; bertan, iraupena eta lanaldi mota jasoko dira.
- d) Kontratututako pertsona Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta eman dela dioen agiriaren kopia.
- e) Kontratututako pertsonaren lan bizitzaren txosten eguneratua, Gizarte Segurantzak emandakoa (informazio horren xedea da egiaztatzea kontratatutako pertsona langabezian al zegoen eta enpresa berberarekin edo enpresa talde berberarekin aurretik kontraturik izan ote duen).
Erantzukizun aitortpena, kontratazioak ez duela zertan kanpoan geratu eta bateragarria dela dioena, 4. atala oinarri hartuta.
- f) Zinpeko aitortpena (eskaera eredu normalizatua). Aitorpen bakarra da, eta honako alderdi hauek hartzen ditu bere gain:
 - o Laguntzen deialdi honen oinarriak ezagutu eta onartzen dituela aitortzea.
 - o Diru-laguntza publikoak itzultzeko edo horien inguruan zehatzeko prozeduretan nahasita ez dagoela aitortzea zinpean.
 - o Erakunde eskatzaileak zinpean aitortzea ez dagoela zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin, eta ez dagoela horretarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz.
 - o Zinpean aitortzea zein laguntza eskatu edo jaso dituen ekintza berbererako, erakunde publiko edo pribatuen eskura.
Zinpean aitortzea Minimisen araua betetzen duela, Minimis laguntzak aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko erregelamendua (EB) eta ondorengo berrikuspenek ezarritakoarekin bat etorritik. Aipatu erregelamendua 2006ko abenduaren 28ko Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 69/2001 erregelamendua (EB) ordeztuko.
- h) Lan merkaturatu sartzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonen kolektiboetako batekoa dela justifikatzen duen dokumentua.

2.- Enpresari buruzko dokumentazioa:

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Pertsona juridikoen kasuan: Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia, eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalarekin eta ordezkari botereekin batera.

- c) Pertsona juridikoak badira, erakundea edo enpresa eratzeko eskrituren fotokopia (ondoren izandako aldaketekin) eta dagokion erregistroetako inskripzioa.
Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.
- d) Alta eta baje ziurtagiria Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, Foru Ogasunak emandakoa.
- e) Enpresa edo erakundearen altaren kopia Gizarte Segurantzari.
- f) Diru-laguntza eskatu duen erakundeak zerga betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiria.
- g) Entitateak bere betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorren agiria.
- h) Hirugarrenen alden dokumentua, erakunde eskatzaileak eta banku erakundeak sinatuta eta zigilatuta (Eskaera Eredua Normalizatuko laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia).
- i) Kontratazioa mugagabea bada, enpresaren lan bizitzaren kopia eguneratua aurkeztu beharko da kontratua hasi eta bi urteren buruan (kontratutako langileak enpresan alta emanda jarraitzen duela egiaztatze aldera).

Eskatzaileak aitorten bateratuan jasotako datuen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen erregimena aplikatu ahal izango zaio.

10.- Akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskaerak deialdi honetan exijitutako eskakizunak bete ezean, edo exijitutako dokumentazioa eransten ez bada, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeak bere 71. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesdunei. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta artxibatu egingo dela inolako izapiderik gabe, legezko testu beraren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Eskaera ez da egindakotzat hartuko behar bezala bete arte eta espedientea osorik egon arte (7 eta 8. artikulua).

11.- Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.

Forlani dagokio aurkeztutako eskaerak aztertzea eta ebaluatzea. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen duen edozein agiri eta/edo informazio osagarri eska dezake eskaera behar bezala ulertze eta ebaluatze aldera.

Ezarritako baldintzak ote betetzen diren egiaztatzeko, eskaera bakoitza aztertu eta ebaluatutakoan, ebazpen proposamena egingo du, eskatutako diru-laguntza eman edo ez emateko berariazko erabakiarekin eta horren zenbatekoa adierazita.

12.- Laguntza emateko ebazpena.

Aurreko atalean aipatutako proposamena ikusita, Forlaneko Kontseilu Errektoreak ebazpena emango du egingo duen lehenengo bileran.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren

26ko 30/1992 Legeak bere 44. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, ebazpena emateko aurreikusi den epea igarota enpresa edota erakunde interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, eskatutako laguntza ukatu egin dela ulertuko da.

Forlanen iragarki-taulan emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda bat argitaratuko da. Bertan berriaz jasota geratuko dira gaitzesteko edo ez emateko arrazoiak. Argitaratzeari dagokionez, Diru-laguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikuluari eta Lege horren Araudia onartzen duen uztailearen 21eko 887/2006 ERREGE DEKRETUaren 30. artikuluari erreparatuko diote.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokionez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3. artikuluan jasotzen den moduan. Erabaki berri baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira gaitzetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun hurrenkerari jarraituz, betiere onuradun batek berriaz uko egiteagatik eskatutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berriazko uko egitezat hartuko da oinarri hauetan ezarritako edozein eskakizun ez betetzea.

13.- Erakunde onuradunen betebeharrak.

13.1. Laguntza horiek jasotzen dituzten enpresek, profesionalek eta erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, diru-laguntza ematen dela jakinarazten denetik aurrera hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek berriaz eta idatziz uko egin ezean, onartutzat joko da.
- b) Laguntza honen xedea betetzea, eta kontratazioa 2014ko abenduaren 31 baino lehen egitea, Gizarte Segurantzaren alta emanez.
- c) Ez jartzea eragozpenik Forlanek edota beste kontrol-organoek egin behar dituzten egiaztatze guztiak eta finantza-kontrola gauzatzeko. Hori dela eta, egintza horiek betetzean eskatu ahal zaien informazio guztia eman beharko dute.
- d) Merkataritza-legeriak zein kasu bakoitzeko onuradunari ezarri ahal zaizkion alorreko legeriak agindu bezala, kontuen liburuak, diligentzien erregistroak eta behar bezala ikuskatutako agiriak edukitzea, bai eta diru-laguntzen oinarri arautzaileek eska ditzaketen kontuen egoera nahiz erregistro zehatzak ere. Hori guztia egiaztatze eta kontrol zereginak ondo bete direla bermatzeko.
- e) Forlani aditzera ematea beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituela, laguntzen xede diren jarduerak finantzatzeko. Adierazpen hori idatziz egin behar da, ebazpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunetan.
- f) Diru-laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea Forlani.
- g) Forlani beharrezko informazio edo dokumentazio osagarri ematea laguntza eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko.
- h) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honek ezartzen duena bete ezean.

13.2. Laguntza horien erakunde onuradunek izaera bereziko betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Laguntzaren xede den enpleguaren iraupena bermatzea gutxienez kontratuak iraun bitartean, eta Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean etenik gabe altan emanda egotea.

Langilearen lan-egonkortasunari eustea laguntza eskaeran ezarritako epean.

Kontratua eten edo iraungitzen bada, honako arrazoi hauek ezingo zaizkio enpresari edo erakunde kontratatzaileari egotzi:

- Enpresari ezin egotzi dakizkioken arrazoitzat hartuko dira Langileen Estatutuko 49. artikuluan (1.d eta 1.e atalak), eta 40, 45 (1.a eta 1.b atalak izan ezik), 52 eta 54. artikuluetan bildutakoak (azken bi kasuetan betiere langileak kontratuaren iraungipena errekurritzen ez badu edo, hala izan ezean, agintari eskudunek bidezkoa dela adierazten badute).
- Frogaldia ez gairatzeagatik langileari baja ematea ere ezingo zaio enpresari egotzi.

Hortaz, galarazteko eta/edo iraungitzeko arrazoiak kontratatutako pertsonari edo frogaldia ez gairatzeari egotzi ahal bazaizkio, pertsona hori ordeztu egin beharko da 2. atalean zehaztutakoari erantzuten dion beste langile batez. Kontratazio hori epe baterako egin beharko da, eta epe horrek diru-laguntza hasi zuen pertsonaren kontratazio-epealdiari gehituta, diru-laguntzaren zenbatekoa zehaztu zuen epearen iraupena izan beharko du, 5. atalean ezarritakoaren arabera. Kasu horietan, diru-laguntzak ez du hasieran emandako diru-laguntzaren zenbatekoa gairatuko.

Ordezteko gehienezko epea 21 egunekoa izango da.

Epe horretan kontratatutako langilea ordezten ez bada, enpresak diru-laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du, bete gabe geratu den kontratu epeari dagokiona, hain zuzen ere.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak enpresari egotzi ahal bazaizkio, enpresak jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko du.

13.3. Enpresak sortzen direnean, gutxienez 12 hilabetez egon behar dira altan emanda (sortzen diren unetik aurrera zenbatzen hasita), baldin eta arrazoi objektiboak eta justifikatuak direla-eta aurreikusitakoa baino lehen ixten ez badira.

14.- Ikuskaritza.

Forlanek diruz lagundutako jardueri buruz egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa eta erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute.

15.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntzen ordainketa zati bakarrean edo bi zatitan egingo da, jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren:

1.- Kontratazioak obra amaitu arte: Ordainketa bakarra kontratazioa amaitutakoan, iraupena sei hilabete edo gehiagokoa bada edo kontratua hasi zenetik aurrera urtebete igaro bada. Ordaindu egingo da deialdi honetan araututako kontratazio baldintzak bete direla egiaztatutakoan.

2.- Gainerako kontratuak, kontratazio mugagabeena izan ezik: Bi ordainketa; % 50 Forlaneko Kontseilu Errektoreak emandako laguntzen ebazpena onartu ostean ordainduko da, eta gainerako % 50 deialdi honetan araututako kontratazio baldintzak benetan bete direla egiaztatzen denean.

3.- Kontratu mugagabeak: Bi ordainketa; % 50 Forlaneko Kontseilu Errektoreak emandako laguntzen ebazpena onartu ostean ordainduko da, eta gainerako % 50 hasierako kontratazioa egin eta 15 hilabetera, deialdi honetan araututako kontratazio baldintzak benetan bete direla eta pertsona horrek enpresan jarraitzen duela egiaztatzen denean.

Egiaztapen hori, diru-laguntzarako eskubidea ematen duen kontratuaren iraunaldia pasa ondoren egingo da, gehienez ere hilabeteko epean, eta horretarako, honako dokumentazio hau eman beharko da:

- a) Diruz lagundutako kontratuaren soldaten ordainketen banku-ziurtagiria laguntzaren xede den aldiaren zehar.
- b) Diruz lagundutako kontratuaren nominen kopiak laguntzaren xede den aldiaren zehar.
- c) Diru-laguntza eskatu duen entitateak zerga betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiria.
- d) Erakundeak betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorraren agiria.
- e) Zinpeko aitortpena (Eskaera Eredu Normalizatua). Enpresaren lan bizitzaren kopia eguneratua.

4.- Muskizen enpresa edo negozio berriak sortzeko laguntzari dagokionez, laguntza bi zatitan ordainduko da:

Lehen ordainketa % 50ekoa izango da (1.500,00 €), eta aurretik diru-laguntzaren xede diren gastuak justifikatu egin beharko dira faktura originalekin edo fotokopia konpultsatuekin. Gastua, gutxienez, 3.000,00 €-koa izango da, zergak aintzat hartu gabe.

Bigarren ordainketa gainerako % 50ekoa izango da (1.500,00 €), jarduera abiarazi zenetik aurrera urtebete igarota. Aurretik justifikatu beharko da jardueran alta emanda jarraitzen duela.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena eman eta 15 hilabeteko epean ziurtagiririk aurkezten ez bada, ebazpena emango da hasiera batean emandako laguntza ukatzen dela adierazteko.

5.- Norberaren kontura lana sortzeagatik ematen diren 1.000 euroen kasuan, autonomoen lehenengo ordainagiria ordaindu dela egiaztatzen denean, % 50 emango da, eta gainerakoa altan eman denetik aurrera urtebete pasatakoan. Horretarako, ordaindu izanaren agiriak erakutsi behar dira.

Eskatzaileak aitortpen bateratuan jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen erregimena aplikatu ahal izango zaio.

16.- Diru-laguntzak argitaratzea.

Aurkezteko epea amaituta eta eskaera guztiak ebatzitakoan, eman diren diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da Muskizko udaletxeko iragarki-taulan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak bere 18. artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 ERREGE DEKRETUAK bere 30. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta deialdi honen 11. artikuluan zehaztutako betez.

17.- Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok emakidaren ebazpena aldatuko du, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak gordetzen badira. Horretarako, Forlanek aldatzeko ebazpena emango du, emandako diru-laguntzen zenbatekoak berriro doituko dituena.

18.- Diru-laguntzak itzultzea.

Jasotako kopuruak itzuli egingo dira, diru-laguntzak ordaindu ziren unetik legez ezarritako interesekin batera, baldin eta erakunde onuradunek deialdi honetan, emakidaren ebazpenean eta aplika daitezkeen beste arauetan ezarritako baldintzak beteko ez badituzte. Hori guztia arauak ez betetzeak eragin ditzakeen beste ekintzei kalterik egin gabe.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoiak:

- Diru-laguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.
- Egiaztatzeko betebeharra ez betetzea.
- Diru-laguntza ematerakoan onuradunari/onuradunei ezarritako baldintza/baldintzak ez betetzea.
- Kontrol jarduketei uko egitea edo horiek oztopatzea.
- Diru-laguntza gauzatutako jarduera baino handiagoa izatea.

19.- Erregimen ordeztaila.

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetan, honako hauek aplikatuko dira: diru-laguntzak ematea arautzen duen Muskizko Udalaren udal ordenantza, Udalbatza Osoak 2010eko martxoaren 11ko ohiko bilkuran onetsitakoa eta 2010eko maiatzaren 19ko BAO on argitaratutakoa; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta berau garatzeko Erregelamendua; eta azaroaren 26ko 30/92 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

20.- Datu pertsonalak babestea.

Muskizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, honako hau ematen du jakitera: eskatzaileen datu pertsonalek tratamendu automatizatu izan dezaketela eta Muskizko Udalaren zein Organismo Autonomoen Informazio Sistemetan sar daitezkeela. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko eskubidea erabil dezakete Herriarrentzako Arretarako Bulegoaren bidez.

Laguntzen programan parte hartzeak esan nahi du emandako datu pertsonalak administrazio publikoei edo Muskizko Udalarekin lan egiten duten erakundeei utzi dakizkiela eta orotariko hedabideetan argitara daitezkeela.

21.- Baliabide ekonomikoak.

Laguntza horiek osatzen dituzten funtsak, helburu honetarako, 2014ko aurrekontuaren erabilgarritasunera mugatuta daude.

22.- Azken xedapena.

1. Laguntzen deialdia BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

2. Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.

Muskizen, 2014ko otsailaren 5ean.